



ESKUAK NOLA GARBITU ERAKUSTEN DUEN BIDEOA, BARAKALDO-SESTAO ESI-AREN ESKUTIK

[Osatuberriren 38. zenbakian](#) jardun ginen Marivi Calleja erizainarekin Barakaldo-Sestaon egiten dituzten «Lankideak euskaraz. Noiz zure txanda?» hitzaldiez, eta arestian, maiatzaren 2an, haren lankide Ana de Prado erizainak beste [hitzaldi interesgarri bat](#) eskaini zuen, hain zuzen ere, arreta sanitarioan eskuak egoki garbitzeak duen garrantziari buruz, gogoan hartuta handik gutxira –maiatzaren 5ean– eskuen higienearen nazioarteko eguna ospatuko zela.

Hitzaldiaren bukaeran, ESI bereko lankide batzuek bi helburu hauekin egin duten [abestiaren bideoa](#) erakutsi zuten: eskuen higienearen garrantzia zabaltzea profesionalen artean, eta euskararen erabilera bultzatzea.

[Orain arte egindako hitzaldi guztiak](#)

OSABAR, EUSKARAZ LAN EGITEKO BALIABIDEA

Osabarrekin, besteak beste, itzulpenak kontsultatu edo hizkuntza-zalantzak argitu daitezke; Osabarrek milaka itzulpen biltzen ditu testuak kontsultatzeko, eta galderak egiteko aukera ere eskaintzen du, zalantzarentzako argibiderik topatzen ez bada haren datu-basean.

Osabar Osakidetza sare osora hedatu aurretik, hilaren 28an, Donostialdea ESiko Osabide Global, Osabide Global Primaria eta E-Osabide aplikazioetan txertatu zen, baliabidea pilotatu eta hobetu beharreko arloak detektatzeko.

Proiektu hau Zuzendaritza Nagusiko Euskara Zerbitzu Korporatiboaren eta Informatikako Zuzendariordetzaren arteko lankidetzaren emaitza da.

[Erabilera-gida ikusteko sakatu hemen.](#)



OSAKIDETZAKO IKERTZAILEAK KRISTALEZKO HEZURREN GAIXOTASUNERAKO TRATAMENDUAREN ALTERNATIBAK AZTERTZEN ARI DIRA

Maiatzaren 6an Osteogenesi Inperfektuaren Mundu Eguna izan zen. Gaixotasun arraroa da Osteogenesi Inperfektua (OI), eta honako ezaugarri hauek dituzten nahasmendu genetikoaren multzo heterogeneoa du: hezur-hauskortasuna handitzen da, hezur-masa baxua du eta larritasun-maila aldagarria duten hezur-hausturak izaten dira. Horregatik esaten zaio «kristalezko hezurren gaixotasuna». Kasu gehienetan, *COL1A1* eta *COL1A2* kolagenoen gene-mutazioek eragiten dute.

OI duten ume gehienek hezur-haustura ugari izaten dituzte bat-batean, eguneroko jardueran edo traumatismo txikiak izan ondoren, eta horiek hezur luzeetan eta bizkarrezurrean deformazio handiak eragiten dituzte, eta hazkuntzan defizit garrantzitsua. Zoritxarrez, oraindik ez dago OI sendatzeko tratamendurik.

Biocruces Osasun Ikerketako Institutuko Clara I. Rodríguez doktorea da Ama Zelulen eta Terapia Zelularren taldeko zuzendaria, eta taldea, ikerketa-ildoetako batean, OI duten pazienteentzako estrategia terapeutikoen garapenean espezializatzen ari da. Talde hori, Genetika eta Pediatria Zerbitzuekin batera, eta Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Immunologia Unitatearekin batera, OI duten paziente pediatrikoentzako terapia zelularreko saiakuntza kliniko aitzindariaren buru da. Saiakuntza horren helburua da OI larria duten umeetan ama-zelula osasuntsuak sartzeak duen segurtasuna eta eraginkortasuna erakustea.

Era berean, zelula horiek beren eraginak gauzatzeko dituzten mekanismoak aztertzen ari dira; proiektu hori Biodonostia Ikerketa Institutuarekin lankidetzan garatzen ari da, eta Carlos III.a Osasun Institutuak,



AHUCE fundazioak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak finantzatzen dute.

Beñat Labeguerie Arenaza

Donostialdea ESIko pneumologoa

«Teknologia berriekin lan gehiago egin dezakegu denbora berean»

Medikuntzako pneumologia-espezialitatea duela lauzpabost urte amaitu ondoren, Beñat Labegueriek (1984, Donostia) argi zuen loaren alorrean espezializatu nahi zuela. 2017ko martxotik, Donostialdea ESIan egiten du lan. Duela gutxi, Bidasoa ESIaren Berrikuntza eta Ikerkuntzari buruzko II. Jardunaldian *Praktika on bat teleloan* izeneko hitzaldia eman zuen, praktikan jarritako esperimentu baten emaitzak aurkezteko.

Praktika on bat teleloan izenburuak zeri egiten dio erreferentzia?

Teknologia berriek abantaila asko ekarri dizkigute medikuntza-alorrean, baina, horiek integratuko baditugu, ikerketak egin behar dira, ikusteko zein diren teknologia erabilgarriak. Eta, hain justu, hori egin genuen Bidasoan: gure eguneroko lana arintzeko prozesu bat jarri genuen abian, eta emaitzak aurkeztea izan zen hitzaldia.

Zer jarri zenuten abian?

Pneumologok urtean behin ikusten ditugu apneak dituzten pazienteak, baina, apurka-apurka pazienteen kopurua handitzen doanez, gero eta konplikatuago izaten ari da pazientea modu eraginkorrean artatzea; izan ere, 22 pneumologo gaude Gipuzkoan, orotara, eta apneak dituzten hamar bat mila paziente ditugu. Pazienteari urtero uzten diogu apneak kentzeko makina automatikoa, haren apneak zenbatekoak diren ikusteko, eta horren arabera doi-

tzen diogu berak etxean duen CPAP makina. Pare bat gau edukitzen du makina automatikoa, eta, ondoren, ekarri egiten digu. SD txartel bat dute makina horiek, eta bertako informazioa deskargatu eta interpretatu behar izaten dugu. Horrek, azkenean, denbora asko eskatzen digu. Hala, Bidasoan esperimentu bat egin genuen 800 pazientekin, zeinean pazientearen makinak berak bidaltzen baitzigun informazioa haren etxetik Internet bidez, eta gu lanera heltzerako paziente guztien informazioa geneukan pantailan. Horrek ahalbidetzen zigun denbora laburragoan paziente-kopuru handiagoa ikuskatzea. Hitzaldian esperimentu horretako emaitzak aurkeztu genituen.

Eta zer ondorio atera zenituzten?

Denbora berean lana nabarmen aurreratzea posible dela, bereziki. Egiten genuena baino lauzpabost aldiz gehiago egin dezakegu orain modu horretara, eta eraginkorragoak izaten laguntzen

digu. Hori ikusita, Donostian aplikatzea pentsatu genuen, eta abian da dagoeneko. Profesional-kopuru berarekin etekin gehiago ateratzen dugu. Donostian, baina, beste era batekoa da funtzionamendua: CPAP izeneko makina pazienteari jarri aurretik, makina adimenduna jartzen zaio gure ordenadore-tara konektatuta, hilabete batez. Lehenengo 30 egunetan, egunero-egunero, pazientearen apneari buruzko informazioa sartzen gara, eta, edozein arazobadur, aldaketa Internet bidez egiten dugu klik bakarrean; adibidez, presioa aldatzen diogu. Arnasgailua ondo jartzen ote duen ere ikus dezakegu informazioan. Helburua da 30. egunean pazientea erabat ondo egotea makina arruntarekin datozen hilabeteetarako. Baldintza batekin uzten zaio, ordea, makina pazienteari, eta da gutxienez lau ordu baino gehiagoz eduki behar duela makina martxan. Informazio hori makinaren kontagailuak erregistratzen du. Sei hila-





betean behin, arnas terapeuta batek bisititzen du pazientea, nola dagoen ikusteko. Pazienteak ez badu baldintza betetzen, kendu egiten zaio makina.

Apneak dituzten pertsonen kopurua handitzen doala diozu.

Bai, etengabe, eta gazteak kontsultan ikustea gero eta ohikoagoa izaten ari da. Loaren unitatea ez zen existitzen Osakidetzan duela hamabost bat urte, eta sortu egiten zuten, 500 pertsonak apneak zituztenez makina behar zutelako. Jendea ere sentibilizatzen joan da. Argi dago jada ez gaudela prest zurrunga egiten duen norbait ondoan edukitzeko, eta loari buruzko ezagupenak zabaltzen joan dira: apneak edukitzeak bihotzekoak eman ditzakeela, iktus bat izateko probabilitatea handiagoa dela, eta abar. Eta, hala, jendea galdetzen hasten da, eta ahoz aho zabaltzen. Gipuzkoan 10.000 pertsona daude makina dutenak. Eta askoz gehiagok eduki beharko lukete. Arazoa da, ordea, me-

diku gutxi gaudela horri aurre egiteko; makina jartzea erraza da, baina gero kontrolatu egin behar da egoera.

Soluzioa, hortaz, teknologia berrietan dagoela uste al duzu?

Argi dago loaren unitateko paziente-kopurua handitzen doala etengabe. Edo hemendik urte batzuetara 22 pneumologo beharrean 44 pneumologo gara, edo beste modu bat egon beharko du pazienteak kontrolatzeko, urtean behin aurrez aurreko kontsulta izatera itxaron gabe. Arazo bat dago, eta da mediku nahikorik ez dagoela espezialitate honetan.

Esan duzu duela hamabost bat urte sortu zutela loaren unitatea.

Hori da. Ospitalearen arabera, espezialitate batek edo beste batek eramaten du loaren kontua. EAEn, pneumologok; Nafarroan, neurofisiologok; eta beste batzuetan, neurologok. Loaren unitateko lana, niretzat, esker onekoa da; izan ere, apneak kentzean, hobe-

kuntza segituan nabaritzen da, eta pazienteek asko eskertzen digute, bizitza aldatzen baitzaie.

Nola detektatzen dira apneak?

Apneak edukitzeko, lehenik eta behin pertsonak zurrunga egin behar du. Arnasa hartzeari uzten badio denbora labur batez, apneak ditu. Iratzarri egiten du pazienteak, eta egunez nekatuta sentitzen da. Gizonetan gertatzea ohikoagoa den arren, emakumeak menopausiara heltzen den unetik pisu gehiago hartzen du, eta apnea eta zurrungaren kopurua berdindu egiten da gizonen eta emakumeen artean. Apnea-kopurua pertsonaren pisuaren arabera da, gehiengotik. Eta makina kiloetara doitzen da.

Nola jokatu behar da apnea dugunean?

Ez da ezer egin behar. Sentsazio estugarria da, baina hortik ateratzeko giltza norberak du. Lehenik eta behin, pertsonak lasaitu egin behar du, eta, apnea kentzeko, pisua galtzea edo albo batera lo egitea gomendatzen da.

hizkuntza-baliabideak agenda

lazko irailean, hain justu ere, [23. buletinean](#), amaraunean kontsultatu ditzakegun zenbait baliabide azaldu genituen laburki (*Dudanet, Jagonet, Euskara teknika, Zalantzen txokoa, Irale-ren galde-erantzunen datu-basea*).

Oraingoan, Nafarroako Hezkuntza departamentuak eskaintzen duen beste bat aurkeztera gazkizue: EIBZ, Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroaren web-orria, eta batez ere orri horren EIBZ blogak atalean dagoen hau: [Hizkuntza akatsak](#). Hona bertan argitaratutako zenbait testu, ohiko zalantza batzuen argigarri modura:

HANDITUZ JOAN DA = HANDITZEN JOAN DA

Bi egitura hauek zuzenak dira eta esanahi bera dute, zenbait hitzunek besterik uste badute ere. Hala ondorioztatzen da *Euskaltzaindiaren Hiztegia* **joan** aditzari dagokion sarrera kontsultatuta. Hauxe diote 7. adieran:

joan, joan, joaten **7** da ad. (Egintzaren jarraitutasuna adierazteko, osagarritzat beste aditz baten era burutua -z atzizkiak edo era burutugabea hartzen duela). *Harrabotsa areagotuz doa. Herri xehea galduz omen doa euskara. Zorrak gehitu ahala, dirutza urritzen zihoakigun.*

[Jarraitu irakurtzen](#)

BI PUNTUEN ONDOREN MINUSKULAZ

Askoren ustez, bi puntuen ondoren maiuskulaz idatzi behar da. Salbuespenak salbuespen, uste okerra da hori. Bi puntuen ondoren minuskulaz idatzi behar da, kontrako arrazoirik ez bada behintzat. Adibidez:

- Oso garbi du urteak bete aurretik zer egin nahi duen: marka ezarri.
- Hauek dira lau urtarokak: udaberria, uda, udazkena eta negua.
- Ordubetean bukatu zituen etxeko lanak: hautsa kendu, lisatu eta otordua prestatu.

[Jarraitu irakurtzen](#)

HIZTEGI BATUAN «LL» GRAFIAZ IDATZITA DATOZEN HITZAK

Zenbaiten ustez, <<ll>> grafia, hau da, <<l bikoitza>> ez da zuzena euskaraz. Uste okerra da hori. Hauek dira gaur egun Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan -ll- bilkuraz idatzita agertzen diren hitzetako batzuk: **artilleria, ballet, billar, billete, bonbilla, gerrilla, gillotina, gillotinatua, kuadrilla, llama, lollo, lollobelarra, pastilla, tortilla**.

Hortaz, okerrak dira: *artileria, *balet, *bilar, *bilete, *bonbilla, *gerrilla, *gilotina, *gilotinatua, *kuadrilla, *pastilla, *tortilla.

DESBERDINAK: «BIKOTE» ETA «BIKOTEKIDE»

Hiztun askok **bikote** hitza erabiltzen dute **bikotekide** edo **bikote-lagun** hitzen adierarekin. Okerra da erabilera hori. **Bikote** hitzaren esanahia *parea* da, eta **bikotekide** eta **bikote-lagun** hitzarena, *berriz, pare bateko kideetako bat*.

- *Nire **bikotea** psikologoa zen.
- *Aspaldi hil zen zure **bikotea** eta bakarrik bizi zara.
- *Bera zein bere **bikotea** euskaldunak dira.

Zuzenak izateko, honela behar zuten:

- Nire **bikotekidea/bikote-laguna** psikologoa zen.
- Aspaldi hil zen zure **bikotekidea/bikote-laguna** eta bakarrik bizi zara.
- Bera zein bere **bikotekidea/bikote-laguna** euskaldunak dira.

[Jarraitu irakurtzen](#)

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO PROBETARAKO 2018KO LEHENENGO DEIALDIA

Ahozko probak ekainaren 19an eta 20an egingo dira, EAEko hiru lurraldeetan Portugaleten, Gasteizen eta Donostian.

Oharra: Donostiakoak Musikenen egingo dira, Euskal Herriko goi-mailako musika-ikastegian (Europa Plaza, 2).

[informazioa](#)

UPV/EHUko UDA-IKASTAROAK

Ekainaren eta irailaren artean «Osasuna, pertsonetikoa konpromisoa» prestakuntza-zikloa egingo da Osakidetzaen diru-laguntzarekin. Guztira 16 ikastaro dira. Hona horietako bi:

«Eskoliosia eta jarrera» ikastaroa.

Irailaren 3 eta 4an. Donostian, Miramar jauregian. Hizkuntzak: gaztelania eta euskara. [informazioa](#)

«Osasuna eta hizkuntza: erronkak eta aukerak» ikastaroa.

Irailaren 13 eta 14an. Bilbon, UPV/EHuren Bizkaia aretoa. Hizkuntza: euskara. [informazioa](#)



UEUko UDAKO IKASTAROAK

Iruñean, Baionan eta Eibarren [informazioa](#)

UDAKO EUSKARA-BARNETEGIAK

AEK, Bilbo Zaharra, Gabriel Aresti, IKA, Maizpide, Ulibarri, Zornotza. [informazioa](#)

